

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2023ko urriaren 16tik 20rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: KPI



Datuaren analisisia

Euroguneko inflazioak bederatzi hamarren egin zuen behera irailean, urteko % 4,3ra, eta hasierako kalkuluarekin bat etorri zen. Horiek horrela, prezioek hamaika hilabetez jarraian egin dute behera (apirilean hamarren bat igo zenean izan ezik).

Apaltze horren erantzule nagusia energiaren beherakada izan zen (% 4,6 vs 2022ko +% 40,7), baina baita beste elementu batzuk ere. Izan ere, elikagaia, alkohola eta tabakoa bederatzi hamarren apaldu ziren, % 8,8raino; zerbitzuek, berriz, zortzi hamarren egin zuten behera, % 4,7ra, eta ondasun-industrialek sei hamarren, % 4,1era.

Inflazioaren beherakada orokorra izan zen Eurogune osoan, baina bereziki handia izan zen barnealdean. Alemanian, prezioek 2,1 puntu egin zuten behera, % 4,3ra. Frantzia eta Italia, tasak aurreko hilean erregistratutako oso antzekoak izan ziren. Hala ere, beheranzko joera horren barruan salbuespen bakarra Espainia izan zen, inflazioa bederatzi hamarren igo baitzen irailean, eta ekaineko diferentzial positiboa laurden batera murriztu zuen, esportatzeko ahalmena gutxituz.


Azpiko inflazioa % 4,5ekoa izan zen Eurogunean, abuztuan baino zortzi hamarren gutxiago, Eurostaten hasierako kalkuluak berretsiz.

Adierazlearen azalpena

KPIa hilero prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, «erosketa-saskia» izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

ERRESUMA BATUA: KPI



Datuaren analisisa

Irailan, inflazio orokorra bere horretan mantendu zen, urte arteko % 6,7an, analisten aurreikuspenak baino % 0,1 gorago.

Elikagaien prezioek behera egin zuten berriro, baita altzarienak eta etxerako artikuluenak ere. Hala ere, erregaien eta hotelen prezioen gorakadak jaitsiera hori zapuztu zuen.

Bestalde, azpiko KPIaren urte arteko aldakuntzak behera egin zuen, urte arteko % 6,1era (aurreko datua: % 6,2).

Hileko datuei begira, urteko bederatzigarren hilean prezioek % 0,5 egin zuten gora, abuztuko % 0,3ko igoeraren aldean. Datu hori bat dator iazko irailan izandako hileko igoerarekin.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, «erosketa-saskia» izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ETXEBIZITZARI BURUZKO DATUAK



Datuaren analisia

Eraikiten hasitako etxebizitzen kopuruak % 7 egin zuen gora irailean; lau hiletan izandako gorakadarik handiena. Guztira, 1.358.000 etxebizitza hasi ziren eraikitzen, 1.269.000ko aurreko datua gaindituz, baina merkatuak aurreikusitako 1.380.000ra iritsi gabe.

Etxebizitzak eraikitzeko baimenak, ordea, -% 4,4 jaitsi ziren irailean, abuztuan % 6,8 igo ondoren (% 6,9tik berrikusitako datua). Baimenak 1.541.000tik 1.475.000ra jaitsi baziren ere, datua merkatuak aurreikusitakoa baino hobea izan zen, 1.450.000ra jaistea espero baitzuen.

Bigarren eskuko etxebizitzaren salmentek (etxebizitzaren salmenten zati handi bat dira) behera egin zuten irailean, azken 13 urteetako mailarik baxuenera, prezioek gora egiten zuten bitartean. Joan den hilean, 3,96 milioi etxek eta apartamentuk jabez aldatu zuten, hau da, abuztuan baino -% 2,0 gutxiago eta 2022ko irailean baino -%15,4 gutxiago. Hala ere, datua analistek espero zutena baino hobea izan zen, 3,90 milioiko salmentak espero baitzituzten. Prezioak iaizko aldi berean baino % 2,8 altuagoak izan ziren.

Hipoteka-tasen igoerak eta eskaintzaren eskasiak, prezioak gorantz bultzatzeaz gain, etxebizitzaren eskuragarritasuna murriztu zuten erosle askorentzat.

Adierazlearen azalpena

Hasitako Etxebizitzaren indizeak kasuan kasuko hilean eraikitzen hasi diren egoitza-unitateen kopurua neurtzen du. **Eraikuntza Baimenen adierazleak** epe jakin batean eman diren eraikitzekeko lizentzien kopurua neurtzen du. Horrez gain, Eraikuntza sektorearen bilakaera islatzen du. **Bigarren Eskuko Etxebizitzaren Salmenta-indizeak** hilean itxi diren salmenten tasa neurtzen du, etxebizitzena, jabekidetzena eta bigarren eskuko kooperatibena. Bigarren eskuko etxebizitzaren proportzioa etxebizitza berriena baino handiagoa denez merkatuan, adierazle erabilgarri bat da higiezinaren sektorearen joerak zehazteko.

Adierazle horien guztien mailak altzari eta etxetresna elektrikoaren kontsumitzaileen bultzada ekonomikoa eta erosketaren ekimena adierazten digu.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: XEHEKAKO SALMENTAK



Datuaren analisia

Xehekako salmentak uste baino gehiago igo ziren irailean, merkatuaren aurreikuspenak nabarmen gaindituz. Zehazki, hilabete arteko % 0,7 igo ziren, abuztuaren gorantz berrikusitako % 0,8ko igoera izan ondoren eta aurreikusitako % 0,3ko gorakada gaindituz. Neurri handi batean, ibilgailu motordunen erosketen eta taberna eta jatetxeetako kontsumoaren gorakadari esker hobetu zen datua.

Urte arteko datuei begira, xehekako salmentek % 3,8 egin zuten gora.

Igoera horrek kontsumitzaileak indartsu daudela erakusten du, nahiz eta elkarren segidako interes-tasen igoera handia izan. Soldaten hazkundera indarra galtzen ari bada ere, lan-merkatuak sendo jarraitzen du, eta horrek estatubatuarrei gastatzen jarraitzeko tartea ematen die.

Adierazlearen azalpena

Xehekako salmenten adierazleak xehekako salmenta-guneetako diru-sarreraren kopuru osoa neurtzen du, eta kontsumitzailearen gastuaren ahalmen orokorra eta xehekako saltegien arrakasta erakusten ditu. Hilero enpresei xehekako merkataritzaren egoerari buruz egiten zaizkien galdetegien erantzunetatik lortzen dira datuak.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: BPGd



Datuaren analisisia

Datu ofizialen arabera, BPGd-a hiruhileko arteko % 1,3 hazi zen uztaila eta iraila bitartean (+% 0,8 bigarren hiruhilekoan), eta urte arteko % 4,9 (urte arteko +% 6,3 apirila eta ekaina bitartean), analisten iragarpen orokorrak gaindituz. Izan ere, analistek BPGd-a hiruhileko arteko % 1 inguru eta urte arteko % 4,4 haziko zela uste zuten.

Lehen hiru hiruhilekoetan, Txinako BPGd-ak urte arteko % 5,2 egin zuen gora. Sektoreka, lehen sektorea % 4 hazi zen urtarria eta iraila bitartean; bigarren sektorea, % 4,4, eta hirugarrena, % 6.


Estatistiken Bulego Nazionalak «susperraldi eta hobekuntza joera nabarmen bat» azpimarratu zuen, «urteko hazkunde-helburuak lortzeko oinarriak sendoak» direlako. Helburu horiek % 5 ingurukoak dira 2023rako. Nolanahi ere, Estatistiken Bulego Nazionalak zera ohartarazi zuen: «kanpo-merkatua gero eta konplexuagoa eta arrotzagoa da, eta eskari nazionala ez da nahikoa», eta gogorarazi zuen «beharrezkoa dela susperraldi ekonomikoaren eta hazkundearen oinarriak finkatzea».

Adierazlearen azalpena

Estatistiken Bulego Nazionalak argitaratzen du barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Txinak ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: KPI



Datuaren analisia

Inflazio orokorrek bi hamarren egin zuen behera irailean, % 3raino, espero zen moduan, eta azpiko inflazioa % 3ko mugaren azpitik kokatu zen urtebetean lehen aldiz. Hala ere, inflazioa banku zentralaren helburuaren gainetik egon zen, eta, ondorioz, agintariek diru-politika ultramalguia pixkanaka kentzeko itxaropenak bizirik mantendu ziren.

Aurreko urtearekin alderatuta, elikagai freskoen kostu aldakorrak kanpoan uzten dituen azpiko KPIa % 2,8 igo zen irailean, merkatuaren batez besteko aurreikuspena (% 2,7) gaindituz, baina abuztuko % 3,1aren azpitik. Adierazleak hiru hiletan lehen aldiz egin zuen behera, energiaren prezioen jaitziera nabarmenari esker.

Elikagai freskoen eta energiaren prezioak kanpoan uzten dituen azpiko inflazioa % 4,2 igo zen aurreko urteari dagokionez (kalkulua, % 4,1), eta aurreko bi hilabeteetan baino hamarren bat beherago kokatu zen.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, «erosketa-saskia» izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Epea	Aurreik.
10/23	Estatu Batuak	Chicagoko Fed-en indize nazionala	Ira.	--
10/23	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	Urr. P	-18.5
10/24	Japonia	Japoniako Jibun Bank Composite PMIa	Urr. P	--
10/24	Japonia	Manufakturen PMIa		
10/24	Japonia	Japoniako Jibun Bank Zerbitzuen PMIa	Urr. P	--
10/24	Erresuma Batua	ILO langabezia-tasa 3 hilabete	Abuz.	% 4,3
10/24	Alemania	Kontsumitzailearen konfiantza GfK	Aza.	-27.0
10/24	Frantzia	Frantziako fabrikazioaren PMIa HCOB	Urr. P	--
10/24	Frantzia	Frantziako zerbitzuen PMIa HCOB	Urr. P	--
10/24	Frantzia	Frantziako composite PMIa HCOB		--
10/24	Alemania	Alemaniko fabrikazioaren PMIa HCOB	Urr. P	40.0
10/24	Alemania	Alemaniko zerbitzuen PMIa HCOB	Urr. P	50.0
10/24	Alemania	Alemaniko composite PMIa HCOB		--
10/24	Eurogunea	Euroguneko fabrikazioaren PMIa HCOB		43.5
10/24	Eurogunea	Euroguneko zerbitzuen PMIa HCOB	Urr. P	49.0
10/24	Eurogunea	Euroguneko composite PMIa HCOB	Urr. P	--
10/24	Erresuma Batua	Erresuma Batuko fabrikazioaren PMIa Global S&P/CIPS	Urr. P	--
10/24	Erresuma Batua	Erresuma Batuko zerbitzuen PMIa Global S&P/CIPS	Urr. P	--
10/24	Erresuma Batua	Erresuma Batuko composite PMIa Global S&P/CIPS	Urr. P	--
10/24	Estatu Batuak	Philadelphio FEDaren ez-fabrikazioaren jarduera		
10/24	Estatu Batuak	AEBetako fabrikazioaren PMIa S&P Global	Urr. P	49.5
10/24	Estatu Batuak	AEBetako zerbitzuen PMIa S&P Global	Urr. P	49.4
10/24	Estatu Batuak	AEBetako composite PMIa S&P Global	Urr. P	--
10/24	Estatu Batuak	Richmond manufakturen indizea	Urr.	--
10/25	Alemania	IFO enpresen egoera	Urr.	85.5
10/25	Alemania	IFOren gaur egungo ebaluazioa	Urr.	--
10/25	Alemania	IFO aukerak	Urr.	--
10/25	Estatu Batuak	Etxebizitza berrien salmenta	Ira.	684k
10/26	Espainia	Langabezia-tasa	3Q	--
10/26	Eurogunea	EBZren birfinantzaketa tasa nagusia	46296	% 4,50
10/26	Estatu Batuak	Ondasun aurreratuen balantza komertziala	Ira.	-\$85.5b
10/26	Estatu Batuak	Hiruhilekoko BPGd urtekotua	3Q A	% 4,3
10/26	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	Ira. P	% 1,1
10/26	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	44470	--
10/26	Estatu Batuak	Egiteke dauden hileko etxebizitzaren salmentak	Ira.	% 1,0
10/26	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	Urr.	--
10/27	Japonia	YoY Tokioko KPI	Urr.	% 2,7
10/27	Frantzia	Kontsumitzailearen konfiantza	Urr.	81
10/27	Espainia	Hiruhileko BPGd	3Q P	% 0,3
10/27	Espainia	SA YoY xehekako salmentak	Ira.	--
10/27	Italia	Sentimendu ekonomikoa		--
10/27	Estatu Batuak	Urteko KPIaren deflaktatzailea	Ira.	% 3,4
10/27	Estatu Batuak	PCE YoY azpiko deflatoea	Ira.	% 3,7
10/27	Estatu Batuak	Pertzepzioa Mich. U.	Urr. F	63.2
10/27	Estatu Batuak	Kansas Cityko FEDen zerbitzu-jarduera	Urr.	--
10/27	Alemania	Hileko xehekako salmentak	Ira.	--

ERRENTA ALDAKORRA

Burtsek galera orokor eta handiekin amaitu zuten astean, -% 2,5etik gorakoak eskualde askotan, inbertsiogileek jasandako presio-foku ugarien erdian. Hirugarren hiruilekoko enpresen emaitzak argitaratzen ziren bitartean, oraindik hasiberri (hurrengo hiru aste hauek izango dira bizienak), Ekialde Ertainean bizi den tentsioa, petrolioaren prezioa eta tasa subiranoen azken gorakadak kezka-iturri izan ziren, eta eragina izan zuten Atlantikoaren bi aldeetako burtsa-indizeetan. Egoera geopolitikoari begira, Israelen eta Hamasen arteko gatazka hedatzeko aukerak kezka piztu zuen. Gerraren norainokoak zehaztuko du merkatuetan aldi baterako efektua bakarrik eragiten duen edo ondorio larriagoak eta iraunkorrakoak ekarriko dituen. Tasa subiranoei begira, bestalde, FEDeko kide batzuek (Williams, Waller eta Bowman, besteak beste) adierazpen «hawkish»-ak egin zituzten egunotan. FEDeko presidentearen hitzetan, tasak azaroan igotzeko aukerak oso txikiak dira, nahiz eta orain arteko datu makroak sendoak izan. Halaber, zorraren merkatuan epe luzeen errentagarritasunak handitu izana finantza-baldintzak gogortzen ari dela onartu zuen, eta litekeena dela diru-agintaritzak igoera gehigarri baten beharra ordezkatzea. Hala eta guztiz ere, etorkizunean igoera gehiago egiteko aukerari ateak ireki zizkion, AEBetako ekonomiaren sendotasunak eta lan-merkatuen zurruntasunak inflazioa kontrolatzeko diru-baldintza zorrotzagoak ezartzea eska lezakeelako. Gainera, «une honetan diru-politika murriztailegia dela» adierazten duen zantzurik ez dagoela adierazi zuen. Adierazpen horiek, petrolio gordinaren prezioen azken gorakadekin batera, tasa subiranoen tentsionamendu bat eragin zuten berriro, eta, ondorioz, finantzaketa-kostuak handiagoak izan ziren enpresentzat, inbertsiogileen ezkortasuna handituz. Horrez gain, inguru makroari begira, AEBetan xehekako salmenten sendotasunari buruzko datuak argitaratu ziren, tasa handiagoak denbora luzeagoz mantentzeko mezua babesten duena. Txinan, Asiako erraldoiaren higiezinen merkatuaren egoera txarrak BPGd-aren datu ona ilundu zuen.

ERRENTA FINKOAK:

Arrisku geopolitikoaren hazkundera bigarren mailan geratu zen, eta FEDeko kideen mezu ez hain moldakorrek protagonismo handiagoa hartu zuten, ekonomia estatubatuarraren erresilientziaren erakusgarri diren datu makroekin batera. Petrolioaren prezioek, bestalde, gora egin zuten berriro, eta horrek eragina izan zuen inflazioan. Horrek guztiak 2024an tasak jaisteko aukera are gehiago murriztu zuen, eta tasa subiranoen gorakadak azaldu zituen. Gorakada horiek handiagoak izan ziren AEBetan. Bund bonuaren errentagarritasuna +15 op igo zen, % 2,89raino, eta periferikoek spread-ak egonkor mantendu zituzten Alemaniarekiko. S&P indizeak bere horretan mantendu zuen Italiaren ratinga, eta Greziaren kalifikazioa igo egin zuen, «investment grade» mailara. 10 urterako treasury-ak +30 op egin zuen gora, % 4,91raino. Kredituak bere diferentzialak handitu zituen European.

DIBISAK / LEHENGAIK:

Burtsetan eta zor subiranoan mugimenduak aipagarriak izan baziren ere, dibisen merkatuan aldaketak ez ziren nabarmenak izan. Balantze orokorrean, euroak +% 0,80ko balioa irabazi zuen dolarraren aldean, eta +% 0,66 liberaren aurrean. Lehengaiei dagokienez, petrolioaren prezioa +% 2,46 igo zen, Ekialde Ertaineko gatazka Iran bezalako petrolio potentzietara hedatuko den beldurrez. AEBek Venezuelari zigorrak kentzeko aukeraren berri jakin genuen, herrialdeak petrolio esportazioak areagotu ditzan, baita Washingtonen petrolio upelen erosketa handitzeko planarekin jarraituko duela ere, bere erreserba estrategikorako. Urreak etekina atera zion arriskuarekiko ezinikusari eta +% 2,51 egin zuen gora.

Indizeak	2023/10/20	Aldaketa astean	Ald. 2023
IBEX	9.029,10	-% 2,21	%9,72
EUROSTOXX 50	4.024,68	-% 2,69	%6,09
ALEMANIA	14.798,47	-% 2,56	%6,28
INGALATERRA	7.402,14	-% 2,60	-%0,67
FRANTZIA	6.816,22	-% 2,67	%5,29
ITALIA	29.137,96	-% 3,00	%13,29
S&P 500	4.224,16	-% 2,39	%10,02
DOW JONES	33.127,28	-% 1,61	-%0,06
NASDAQ 100	14.560,88	-% 2,90	%33,10
NIKKEI 225	31.259,36	-% 3,27	%19,79
SHANGHAI	2.983,06	-% 3,40	-%3,44
MSCI WORLD	2.791,24	-% 2,48	%
MSCI GORAK.	925,58	-% 2,70	7,24

Gobernuen tasak	2023/10/20	Aldaketa Astean	Ald. 2023
2 urte			
ALEMANIA	3,12	4	36
ESPAINIA	3,62	4	70
AEB	5,07	2	65
5 urte			
ALEMANIA	2,78	10	21
ESPAINIA	3,61	6	45
10 urte			
ALEMANIA	2,89	15	32
ESPAINIA	4,00	12	34
AEB	4,91	30	104

Kreditu spreada (op)	2023/10/20	Aldaketa astean	Ald. 2023
ITRX EUROPE (5A)	89,48	4	-1
ITRX EUR XOVER	472,50	21	-2

Dibisak	2023/10/20	Aldaketa astean	Ald. 2023
\$/€	1,0594	% 0,80	-%1,04
Yena/€	158,76	% 1,00	%13,08
gpb/€	0,87	% 0,66	-%1,62

Lehengaiak	2023/10/20	Aldaketa Astean	Ald. 2023
BRENT	95,04	% 2,46	%11,85
URREA	1.981,40	% 2,51	% 8,63

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.